

**Erdi Mailako
Lanbide
Heziketa**

**Garraioa eta
ibilgailuen
mantentze-lanak**

Karrozeriako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Karrozeriako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Ibilgailuak pintatzea

- Ibilgailuen gainazalak prestatu, babestu eta berdintzea.
- Gainazalak txukuntzea.

Ibilgailuen karrozerietako egituraz kanpoko elementuak mantentzea

- Ibilgailuaren elementu aldagarriak aldatu edo/ eta konpontzea.
- Metalezko elementuak eta elementu sintetikoak konpontzea.
- Ibilgailuaren egituraz kanpoko elementu finkoak aldatu edo/eta konpontzea osorik nahiz zati batean.

Ibilgailuen karrozerien egiturak mantentzea, ondoko gaitasun unitate hauek biltzen dituena

- Ibilgailuaren elementu finkoak aldatzea osorik nahiz zati batean.
- Ibilgailuaren egitura konpontzea.
- Metalezko elementuen konformazioa eta garrantzizko eraldaketak egitea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek ibilgailuak egin eta mantentzen dituzten industrietan egiten du lan, hain zuzen ere karrozeria arloan, automobilen, ibilgailu astunen, traktoreen, nekazaritzako, erauzte industrietako, eraikuntzako, herri lanetako eta trenbideetako makineriaren azpisektoretan, baita beste produkzio sektore batzuetan ere, honelako

lanak egiten badira: txapa lanak, karrozerien eraldaketa eta egokitzapena, nekazaritzako, erauzte industrietako eta eraikuntzako makineria- ekipamenduen eta ibilgailu astunen eraldaketa eta muntaketa, zuntzeko elementuen eta elementu konposatuen eraikuntza eta konponketa, eta pintura.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Automobilen, ibilgailu astunen, traktoreen, nekazaritzako, erauzte industrietako, eraikuntzako eta herri lanetako makinaren eta trenbideko materialen txapa- eta karrozeria-konpontzailea.
- Ibilgailuetako beiren instalatzailea eta osagarrien muntatzailea.
- Automobilen, ibilgailu astunen, traktoreen, nekazaritzako, erauzte industrietako, eraikuntzako eta herri lanetako makinaren eta trenbideko materialen karrozerien pintatzailea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Elementu aldagarriak.
- Metalezko elementuak eta elementu sintetikoak.
- Elementu finkoak.
- Oinarrizko mekanizazioa.
- Enpresa eta ekimena.
- Gainazalen prestaketa.
- Ibilgailuaren egitura-elementuak.
- Gainazalen txukunketa.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.